



"Ba al dakizu organikorik gabe birziklapena ez dela nahikoa?" lelopean urrats berri bat emanen da Baztango hondakinen kudeaketan

Baztango Udalak birziklapen datuak hobetzen jarraitzeko intentzioz pausu berri bat emanen du: Hondakin organikoak kontenedore bidez kudeatzeko aukera jarriko da martxan bailarako zenbait puntutan

"Ba al dakizu organikorik gabe birziklapena ez dela nahikoa?". Hala da bai, gure etxeko hondakin poltsaren erdia gai organikoa da eta hau behar bezala bereizten ez badugu, gure birziklapen maila arras exkax gelditzen da. Gehenez ere (eta gainerako guztia ongi egiten dugula suposatuz), sortutakoaren erdia birziklatzea lortzen dugu horrela.

Gai organikoa, ongi bereiziz gero aukera eta onura aunitz eskeintzen dituen hondakin frakzioa da: lurrera itzultzen ahal dugun kalitatezko emendakin organikoa eta energia lortzeko aukera ematen digu, ekonomia zirkularrerako aukera eskeintzen digu eta ingurumenaren zainketan eta aldaketa klimatikoaren aurkako borrokan aunitz suposatzen du, bertzeak bertze. Ez bereizteak aldiz, arazo larriak sortzen ditu, hala nola: negutegi efektuko gasen areagotzea, ur, lur eta airearen kutsaduraren haunditzea, ongari kimikoen erabileraren areagotzea, espazioaren okupazioa, etab. Azken finean gure ondorengoaren bizitza baldintzatuko duten efektu negatiboen zerrenda luze bat.

Honela bada, hondakinen birziklapen portzentaiak hobetu eta honela bai Europatik markatzen zaizkigun helburuak eta baita Nafarroako Hondakinen 2017-2027 urte bitarteko Planak zehazten dituen helburuak betetzeko bidean batetik, eta erran bezala, gure ondorengoaren bizi baldintzak hobetu nahian bertzetik, herritarrendako aukera berri bat jarri du martxan Baztango Udalak.

2019an indartu zen sortzaile bereziei kontenedore/kamioi bidezko gai organikoa biltzeko zirkuitua probestu eta honela jasangarritasuna bermatuz, ibilbide honen barnean **zenbait kontenedore marroi paratu dira auzo edo etxeko konpostan arrazoi ezberdinengatik parte hartzen ez duten herritarren hondakin organikoak poltsa hertsian kontenedore bidez biltzeko aukera eskeiniz.**

Kontenedoreak, erran bezala, **MARROIAK dira** eta **hauetan HONDAKIN ORGANIKOAK BAKARRIK botatzen ahalko dira**: hau da, janari hondakinak eta lorezantzako hondakin tikiak. Hondakin hauek beti poltsa hertsian bota beharko dira.

Baztango Udala

Udalak, gai organikoaren kudeaketarako etxe eta auzo konpostaren aldeko apustua egiten jarraitzen badu ere, arrazoi ezberdinengatik konpostan parte hartu nahi ez duten herritarrak gai organikoa kontenedore bidez bereiztera animatu nahi ditugu.

Azken urteetan birziklapen datuek piskanaka hobera egin duten arren, bideak aitzinera jarraitzen du eta horretarako urratsak ematen jarraitzeko asmoa du Udalak. Gai organikoaren birziklapena hobetzearekin batera, **KONTENEDORE BERDEEN erabilera murriztea behar beharrezkoa ikusten da**. Hori dela eta herritarrek nahasia eta behar bezala bereizi gabe botatzen duten hondakinen gaineko kontrola ere areagotuko da eta kontenedore berdeen ahoak murriztuz joan dira.

Erran bezala bada, Udalak Baztango herritarrak gai organikoa bereizteko pausua ematera animatu nahi ditu, horretarako hainbat baliabide eskeiniko direlarik. Edozein zalantza izatekotan ere Udaleko hondakin zerbitzuarekin harremanetan jartzeko deia egiten du: hondakinak@baztan.eus helbidean, 667808539 telefonoan edo Udaletxean bertan.

Ba al dakizu
organikorik gabe birziklapena ez dela nahikoa?

Etxeko hondakinen %50a janari eta lorezantza hondarrak dira

Zer egin behar dut? Ze aukera ditut?

- 1.- Etxeko animaliei jatera eman
- 2.- Petsa hetsian edukiontzi marroian sartu
- 3.- Etxeko konpostagailuan hustu zuzenean
- 4.- Auzo konpostagailura eramán

Hemen EZ

Oraindik tenorez gabiltza... ez dago aitzakiarik, zuregatik eta ingurukoengatik, **BEREIZI HONDAKIN ORGANIKOA!**

EMAN IZENA ETA AUKERATU ZURE BEHARRETARA HOBETKIEN MOLDATZEN DEN SISTEMA:

→ 667 808 539 - hondakinak@baztan.eus

Baztango Udala

Gobernua de Navarra

Nafarroako Gobernua

Oficina de Residuos de Navarra

residuos de navarra nafarroako hondakinak

2021eko apirilaren 15a
Informazio gehiagorako: hondakinak@baztan.eus edo 667 808 539 (Miren)



Bajo el lema "*¿Sabías que sin la materia orgánica el reciclado no es suficiente?*" se dará un nuevo paso en la gestión de los residuos del Baztan

El Ayuntamiento de Baztan dará un nuevo paso con la intención de seguir mejorando los datos de reciclaje: se pondrá en marcha la gestión de residuos orgánicos mediante contenedores en varios puntos del valle

“¿Sabías que sin la materia orgánica el reciclado no es suficiente?”. Efectivamente, la mitad de nuestra bolsa de basura es materia orgánica y si no la separamos adecuadamente, nuestro nivel de reciclaje queda muy pobre. Como máximo (y suponiendo que todo lo demás lo hacemos bien) conseguimos reciclar la mitad de lo producido.

La materia orgánica es una fracción de residuos que, debidamente separada, ofrece múltiples posibilidades y beneficios: nos permite obtener energía y una enmienda orgánica de calidad que podemos devolver al suelo, nos ofrece una oportunidad para la economía circular y supone un gran esfuerzo en el cuidado del medio ambiente y en la lucha contra el cambio climático, entre otras. La no separación, por el contrario, plantea graves problemas como el aumento de gases de efecto invernadero, el aumento de la contaminación de las aguas, tierra y aire, el aumento del uso de fertilizantes químicos, la ocupación del espacio, etc. En definitiva, una larga lista de efectos negativos que condicionarán la vida de nuestros descendientes.

De este modo, con el objetivo de mejorar los porcentajes de reciclaje de los residuos y cumplir así con los objetivos marcados tanto desde Europa como desde el Plan de Residuos de Navarra 2017-2027 por un lado y mejorar las condiciones de vida de nuestros descendientes por otro, el Ayuntamiento de Baztan ha puesto en marcha una nueva opción para la ciudadanía.

Aprovechando el circuito de recogida a generadores especiales de materia orgánica a través de contenedores/camión existente en Baztan, y dentro del mismo, **se han colocado varios contenedores marrones ofreciendo así a la ciudadanía que por diversas razones no participa en el compostaje doméstico o comunitario la posibilidad de depositar los restos orgánicos generados en contenedor marrón en bolsa cerrada.**



Los contenedores, como ya se ha indicado, son de **COLOR MARRÓN** y en ellos sólo se podrán depositar **RESIDUOS ORGÁNICOS**, es decir, restos de comida y pequeños restos de jardinería. Estos residuos siempre deberán ser depositados en bolsa cerrada.

Si bien el Ayuntamiento sigue apostando por el compostaje doméstico y comunitario como mejor opción para la gestión de la materia orgánica, queremos animar a los vecinos y vecinas que por diversas razones no quieran participar en el compostaje a separar la materia orgánica y depositarla en los contenedores habilitados para ello.

A pesar de que en los últimos años los datos de reciclaje han ido mejorando paulatinamente, no podemos relajarnos y el Ayuntamiento pretende seguir dando pasos en este sentido. Junto a la mejora de la separación de la fracción orgánica, se considera necesario reducir el uso que hoy en día se hace de los **CONTENEDORES VERDES**. Por ello, se intensificará también el control sobre los residuos que la población deposita en los mismos sin ningún tipo de separación previa y se irán reduciendo las bocas de estos contenedores verdes.

El Consistorio quiere animar a los y las Baztandarras a dar un paso más en la separación de la materia orgánica, para lo que ofrecerá varios recursos.

Para cualquier duda o aclaración se puede contactar con el Servicio Municipal de Residuos a través de las siguientes vías: hondakinak@baztan.eus en el teléfono 667808539 o en el propio Ayuntamiento.

¿Sabías que
sin la materia orgánica el reciclado no es suficiente?

El 50% de los residuos de tu casa son restos de comida y jardinería

¿Qué tengo que hacer? ¿Qué opciones tengo?

- 1.- Utilizarlo como alimento para tus animales
- 2.- Depositarlos en el contenedor marrón en bolsa cerrada
- 3.- Vaciar el cubo en el compostador de casa
- 4.- Llevarlos a una zona de compostaje comunitario

Aquí NO

Aún estamos a tiempo... no hay excusa, por ti y por los de tu entorno. ¡SEPARA LA MATERIA ORGÁNICA!

APÚNTATE Y ELIGE EL SISTEMA QUE MEJOR SE ADAPTA A TUS NECESIDADES:
→ 667 808 539 - hondakinak@baztan.eus

Baztango Udala

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua

Oficina de Residuos Sistema de Gestión de Residuos

residuos de navarra nafarroako hondakinak

15 de abril de 2021

Para más información: hondakinak@baztan.eus o 667 808 539 (Miren)